

B euskararen BERRIPAPERA

Euskaldunak Amerikan

Euskaldunen eta euskararen presentziaz Amerikan sarritan hitz egin bada ere, egunotan baditugu gaiarekin loturiko hainbat berri.

Wyoming-en euskaraz, 40 urtez

1996ko abenduan berrogei urte bete dira Buffaloko (Wyoming) Euskal Irratsaioa hasi zenetik. Geroztik, eta Euskal Herritik 9.000 kilometrorra, Buffaloko euskaldunek astero, sekula huts egin gabe, zabaldu dituzte *Basque Program* edo Euskal Programaren aire eta berba euskalduna Buffalo eta Wyomingeko Johnson konderri osora.

Euskal komunitatearen babesean sortu eta garatu den ordu beteko irratsaio honen

entzuleak, Euskal Herriko euskaldunak eta Buffalon bertan jaiotako haien ondorengoak dira.

Irratsaioaren berrogeigarren urtebetetzea ospatzeko eta Buffaloko euskaldunen lana ohoratu eta goraiatzeko asmoz *Society of Basques Studies in America* erakundeak omenaldia antolatu du martxoaren zortzi eta bederatzian, Buffalon. Oraintsu arte irratiko zuzendaria izan den Jeanette Esponda, Buffalon jaiotako euskalduna, omenduko dute, besteak beste.

Egitarauaren arabera, omenaldian parte hartzeko Euskal Herritik hainbat ordezkari, abeslari eta bertsolari joango dira Buffalora, hauen artean Jean Haritschelhar, Erramun Martikorena eta Xabier Euskitze.

Ingelesa ikasi euskaldunen artean

Bestalde, eta Amerikatik irten gabe, Idahon dagoen *Boise State University* gazte euskaldunentzako ingeles ikastaroak eskaintzen ditu udan. Ikastaro edo egonaldi hauen berezitasuna hauxe da: ingelesa ikasteaz gain, gazteek Boiseko komunitate eta giro euskalduna ezagutzeko aukera izango dute. Bide batez, ekimen honekin, Boiseko euskal komunitateko gazteengan euskara ikasteko gogoia piztu nahi da.

Informazio gehiago jasotzeko, Boiseko Unibertsitateko *Intensive English Institute*-ra deitu behar da (Tel. 208-385-1709).

Galeusca

Amerikan zehar egindako bidaiatxo ezin amaitu urte

berriaren hasierarekin batera jaiotako den *Galeusca*, satelite bidezko telebista, aipatu gabe. Horri esker, itsasoaren beste aldean bizi diren euskaldun askok "Sustrai", "Asteberri", "Hitzaro" edo "Goenkale" programak, beste zenbaiten artean, ikusteko aukera izango dute.



✕ *Jeanette Esponda Maxwell-ek eta Buffaloko euskaldun talde batek dute irratsaioaren ardura.*

SUMARIOA

- 1 Euskaldunak Amerikan
- 2 Laburrak
 - Bitoriano Gandiaga
 - Kontuan hartzeko
- 3 Ikusgela saioa eta Munduan zer berri
 - Deialdia
 - Urteko sasoiak
- 4 Izen-abizenez
 - Lehen begiratuan
 - Euskaltzaindia

LABURRAK

Eleria: aldizkari berria

Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Sailak *Eleria* aldizkaria sortu du. Argitalpen honek helburuok ditu, besteak beste: zuzenbideko alor guztiak euskaraz lantzea; unibertsitatean, ohiko jardunean euskaraz egiten den Zuzenbidea bultzatzea, eta euskara juridikoaren normalizaziorako bitarteko izatea. 'Gehitu, eta ez kendu' lelopean euskal legelari guztiarentzat izango den produktua egin nahi da, unibertsitateetako irakasleek, abokatuek, administrazioetako langileek, epaileek, notarioek eta Zuzenbidearen gainontzeko profesionalak bere-berea den zerbitu bezala hartuko duten langaia. Aldizkariaren egitura zabalak nahiko ondo erantzuten diola aniztasun asmo horri uste dute arduradunek. Urtean bi ale plazaratuko dira eta honako atal hauetan egituratuko da aldizkaria: gai orokorrak, hizkuntza zuzenbidea, iruzkinak, epaiak eta epaitegiak, euskara juridikoa eta argitalpenak.




Kafe Antzokia: urtebete lanean

Urtebete da Kafe Antzokia abian jarri zela. Bilbon, erdi-erdian, euskarak eta kulturak, jai eta atsedeen giroan, beren tokia dute. Euskaratik abiatutik, musika, kanta, dantza, antzerkia, literatura, artea, zinema, eta abar izaten dira ikusgai. Izan ere, eszenatokia, erakusketa eta mintzaldi aretoa, kafe-jantokia eta haurrentzako nahiz gazteentzako guneak aurki ditzakegu Kafe Antzokian. Arduradunen ustez, euskal topagune eta kulturagune bilakatu da; euskal munduko zein nazioarteko kulturagune, atzerriko talde ugari pasatu baita bertako eszenatokitik. Aurrera begira ere badituzte proiektu berriak: bidaia agentzia sortzea, liburugintza lantzea eta irratia abian jartzea, besteak beste.

Bitoriano Gandiaga

Gabonak mezu bat dira eta honela esan daiteke mezu hau: mundua zoriontsu egin dezagun. Lurra, haizea, sua... mundu honetako elementu guztiakin batera harmonian bizi gaitezten. Hori da niretzat Gabonak. Horrela mintzo izan zaigu iragan Gabonetan Bitoriano Gandiaga olerkari ezaguna, Pello Zabala eta Gontzal Mendibilekin batera egin duen ikuskizunean. *Gabon dut anuntzio* izan da ikuskizun horren izenburua eta Euskal Herriko hainbat lekutan aurkeztu dute. Ikuskizun horren sustraiak orain dela hogeitatu urte sortu ziren, kartoizko Olentzaro bat egin eta taldean kantatzera irteten zirenean. Betiko kantu tradizionalaz gainera, berritzeko gogoak bultzatuta, letraxo batzuk idatzi ziren. Urte batzuk igaro ondoren, letra horiek aipatu ikuskizunaren oinarri izan den liburuaren forma hartu zuten 1986an Gandiagaren eskutik.



Bitoriano Gandiaga Artetxe Mendatan (Bizkaian) jaio zen 1928an. 1940an hasi zituen ikasketak Arantzazuko ikastetxean eta 1954an egin zen apaiz. Bertan plastika eta euskarako irakasle zela, hainbat aldizkaritan (*Aranzazu, Euzko Gogoa, Egan eta Olerti*) parte hartu zuen. Bere poesi lanekin sari ugari irabazitakoa da; besteak beste, 1954an *Begion Lore* poesiarekin, 1956an *Elorriko lorak* izenekoarekin eta 1959an *Lelo xamurrak* deritzonarekin. Bere lehen poesia lirikoak, *Elorri* liburuan

bilduak (1962), formaz tradizionalak eta naturari eskainiak dira; bigarren aro batean Euskal Herriaren eta herritarren neke eta saminak bildu zituen *Hiru gizon bakarka* liburuan (1974). Hirugarrenik, *Uda batez Madril*en bilduman, (1977), poesia pertsonala, dekoratiboa eta plastikoagoa landu zuen gizakiaren ezereza gaitzat harturik. Gerora, lehen aipatutakoez gain, *Denbora galdu alde* lana kaleratu zuen 1985ean. Egun, euskaltzain urgazle da.

KONTUAN HARTZEKO

III. On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketa

Urnieta Udalak, On Manuel Antonio Antia euskararen eta Urnieta herriaren alde eginitako lana eskertu nahian *III. On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketa* antolatuko du. Lehiaketan parte hartzeko, lanek euskaraz idatziak, originalak eta gai librekoak izan behar dute. Martxoaren 21ean baino lehen entregatu behar dira Lekaio Kultur Etxean. Apirilaren 25ean bestalde, Antia jaio zela 167. urtemuga ospatzen den egunean banatuko zaizkie sariak aurtengo irabazleei.

Ipuin labur, bertso paper eta komiki lehiaketa

Durangoko Berbaro elkarteak ipuin labur, bertso paper eta komiki lehiaketa antolatuko du. Edonork har dezake parte, beti ere lana euskaraz idatzia eta inoiz argitaratu gabea bada. Adinaren arabera, hiru sail izango dira. Bestalde, Berbaro elkartera bidali behar dira martxoaren 17a baino lehen. Informazio gehiago bertan eskura daiteke.

★ Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?

Otsailaren 17tik 23ra Doneztebe eta Leitzan
Otsailaren 24tik martxoaren 8ra Iruñan (Planetarium-en)

Ikusgela saioa eta Munduan zer berri

Euskal Irrati Telebistak (EITB) eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hitzarmena sinatu dute telebistako programa hezigarri bi elkarlanean egiteko. Eneko Oregi Hezkuntza sailburuordeak azaldu zuenez, proiektuak telebista eta hezkuntza uztartu nahi ditu eta, horrenbestez, haur eta gazteen prestakuntza

akademikoa eta pertsonala bultzatu. Gazteei zuzendutako programa hezigarriak, beraz, urtarrilean ETB1ean emititzen hasi direnak: *Ikusgela* astelehenetik ostegunera emango da eta *Munduan zer berri* ostiraletan, biak 12.00etatik 13.00etara. Lehenean jorratuko dituzten gaien artean natura, natur zientziak, gizarte-zientziak, teknologia eta komunikazioa dira aipagarri. Bigarren saioa, berriz,

egungo gertaeren gaineko albistegia izango da. Programa hauen atzean, talde zabala ari da lanean: alde batetik, irakasle eta hezkuntza-teknikariak eta, bestetik, telebistako adituak.

X Iñaki Zarraoa eta Iñaxio Oliveri akordioa sinatzen.



DEIALDIA

Akitania-Euskadi-Nafarroa

1992. urtean lankidetzarako ituna sinatu zenetik, mugaz bi aldeetako erakunde nahiz norbanakoen arteko elkarlana areagotzeko tresna garrantzitsu bilakatu da Akitania-Euskadi-Nafarroa Elkarkidetzarako Fondoa. Baterako egitasmoak sustatzeko eta harremanak areagotzeko baliabiderik erabiliena da. Aurtengo deialdia prest dago jadanik eta bertan partaide diren hiru administrazioek deialdiaren ardatzak eta oinarriak kaleratu dituzte.

Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez, apirilaren 10era arteko epea dago egitasmoak aurkezteko.

Informazio gehiago eskuratzeko, deitu Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusira: 945-188137/188174

Urteko sasoiak

Programa hau, izenak dioen bezala, urteko sasoiaren inguruko festa eta ospakizunen alorrean dauden kanta, dantza, ipuin, jantzi, etab. bildu asmo dituen proiektua da: Gabonak, Santaeskea, San Joan sua, San Martinea inguruko tradizioa. Ikuspegi nazionaletik, Euskal Herria luze-zabalean harturik, ondare hori guztia biltzea, egokitzea eta, azkenik, plazaratzea, dira programaren helburuak.

Proiektua Ikastolen Konfederazioak eta Labayru ikastegiak burutuko dute, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eta Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Diputazioek babestuta. Programa joan den urtarrilean hasi eta 1999an amaitzea espero da. Labayru ikastegiaren egitekoa ikerketa eta bilketa lana izango da, batez ere. Ikastolen Konfederazioa, berriz, kudeaketa lanaz arduratuko da.

Proiektuak bi mailatako helburuak ditu: komertziala bata eta didaktikoa bestea, irakaskuntzara egokitua egingo baita lana. Lehenik, kasetean grabatuko da sasoiari dagokion doinu edo kanta, gaurkotu ondoren. Gidaliburu batez lagundurik egongo da grabazio hori eta kanta horren nondik norakoak azalduko dira bertan. Bideo batean festa, ospakizuna bera, nola egiten den eskainiko da. Ikuspegi pedagogikoaz

gain, produktua edozein etxetarako modukoa, edozein helduk erabiltzeko modukoa izan dadin ere saiaturiko dira egileak. Proiektuaren lehen emaitza, aurtengo Durangoko Azokarako prest egotea espero da. Gabonak eta jai horien inguruko doinu, kanta, tradizio, ohitura, etab. jasoko dituen produktua izango da.



Fernando Aranberri



Fernando Aranberri Odriozolak, bi urtetan lanean aritu ondoren, bere lehenbiziko liburua, *Ermua eta Eitzako euskara*, kaleratu du. Ermuko Euskara Batzordearen dirulaguntza jaso duen lan hau egiteko, herriko jende nagusia hartu du iturritzat egileak. Lan honen helburua herriko euskara suspertzea da, azken hamarkadetan euskararen galera nabarmena izan delako udalerrian. Euskarari dagozkion atal nagusiak —bokalismoa, deklinabidea, joskera eta aditza— biltzeaz gain, Ermuko

lanbide eta ohitura zaharren berri ere ematen da. Jasotzen dira ere Ermuko bertsolarien aipamenak eta XIX. mendeko Ezekiel Etxeberria abadearean lan ezezagunaren nondik norakoak. Ermuan jaio zen Fernando Aranberri 1971an. Euskal Filologiako ikasketak Deustuko Unibertsitatean egin zituen, 1993-1994 ikasturtean lizentziatu zelarik. 1994an *Drogetenituri* herri-aldizkarian "Ermuko Euskal Ahozko literatura" izeneko artikulua argitaratu zuen.

Eneko Barrutia

Mundaka eta Bermeon arrantzaleek erabiltzen duten euskara jorrazten da Eneko Barrutia Etxeberriak argitaratu berri duen liburuan. *Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia* du izenburutzat, lan honek eta 1993an, Deustuko Unibertsitatean, *Mundakako arrantzaleen lexiko eta enziklopedia* izenarekin aurkeztu zuen doktoretza tesiaren jarraipena da. UEUren eskutik kaleratu du liburua. Herri bietako

adineko pertsonekin hizketan jardun ondoren osatu ahal izan du bere azterketa liburuaren egileak. 2.600 sarrera, 400 toponimo eta zenbait etnotestu aurki ditzakegu lanak dituen 327 orrialdetan zehar. Eneko Barrutia Bilbon jaioa da, 1966an. Euskal Filologiako ikasketak 1989an amaitu ondoren, hainbat institututan egin du lan. Egun, Bilboko Hizkuntza Eskolan dihardu eskolak ematen.



Euskaltzaindia

Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko erakundeek 1997rako Hitzarmena sinatu dute urtarrilean. Hitzarmen honetan zehazten da, alde batetik, Euskaltzaindiak 1997rako duen ekintza plana eta, bestetik, Hego Euskal Herriko erakundeetatik jasoko duen dirulaguntza. Horren arabera, aurten Euskaltzaindiak 164 milioi pezeta hartuko ditu; horietatik ia 100 milioi Eusko Jaurlaritzak emango dizkio, 17 milioi inguru Nafarroako Gobernuak jarriko ditu eta, gainontzekoa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek emango dute. Erakundeek eta Euskaltzaindiak 1995eko urriaren 27an izenpetu zuten indarrean dagoen Hitzarmena; bost urtez izango da indarrean eta hitzarmenikideek horrela erabakiz gero, beste horrenbeste luzatu ahal izango da indarraldia. Euskaltzaindiak, ohiko jardueraz gain, Orotariko Euskal Hiztegia garatzen jarraituko du 1997an X. eta XI. liburuak. Bestalde, Batzordeen lanek aurrera egingo dute: Hiztegi Batuko Batzordeak 4.000 hitz edo forma aztertuko ditu; Ahoskera Batzordeak prosodia landuko du; Azkue Biblioteka Batzordeak katalogatzerakoan sortzen diren arazoak aztertzen eta erabakitzen jarraituko du eta, horrekin batera, lehendik katalogatu gabe dagoen fondoa katalogatu du, besteak beste.

Lehen begiratuan

Kultura Sailak duela hamar urte bideo gintza programa abian jarri zuenetik, euskarazko 120 bideo komertzial argitaratu ditu. Programa honen bidez, ikus-entzunezko materialetan euskararen erabilera normalizatu nahi da, euskaldunok, batez ere gazteenek, filmek euskaraz ikusteko aukera izan dezagun. Hemen ditugun bideoak, *Pocahontas II. John Smithen itzulera* eta *Bagdadeko lapurra* kaleratu berriak ditugu, *Txerrikume Atsegina* eta *Tomas katakumea eta Karlota ahatea* izeneko filmeekin batera. Aurrekoez gain, *Fievel eta mundu berria* eta *Haran sorginduren bila* bideoak berrargitaratu dira. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak argitaratutako euskarazko bideoak salgai daude liburudendetan, batez ere Zabaltzen banaketa-etxearen eskutik.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

